

ALKARTASUN ZEINUAREN txokoa

Aurtengo Zeinua prestatzeko eta parte hartzera konbidatzeko, ondorengo ekintza hau proposatzen da: ZEINUAREN TXOKOA. Lema, erderaz eta euskeraz, hau da:

**EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA.
ETXEAN BEZELA MAKALENAK LEHENAK.**

Era bitara antolatu daiteke desarrollo:

- 1º) **Gogoeta eta otoitzaldi baten amaiera** lez. Otoitzaldia talde batek egin daike, baina hobeto parrokian edo pastoral barrutian egiten bada.
- 2º) Garizuman zehar (marti osoan), **Elizan bereiztutako txoko lez.**

Modu batean zein bestean, horretarako prestatutako lagungarriak erabili daitezke.

Arropak eskegitekoa: etxeko bizimodua gogoratzen dau, norbera eta ingurukoak zaintzea. Elizbarrutiko Alkartasun Zeinua gogoratu nahi dau, familia askoren egoera **gogoan hartzeko otoitzean**, elizan **familia lez** alkartzeko.

Zelan antolatu?


Atarikoak

- Erabagi **elizako zein tokitan** jarri Zeinuaren Txokoa.
- **Kartela** jarri.
- Kartelaren ondoan, **arropak eskegitekoa** jarri (etxe barruan erabiltzen diranetakoa)
- Eskegi pintzekin **familen egoerei buruzko argazkiak**.
- Horren ondoan, balde bat jarri, **kolorezko tela atalekin** (zuria lehenengo bikaritzarako; gorria bigarreneko, berdea 3.erako, urdina 4.erako, laranja 5.erako, horia 6.erako eta arrosa 7.erako). Atal bakoitzak 50 x 15 zentimetro izan daikez gutxi gorabehera).
- **Errotuladoreak**.
- **Zeinuaren otoitza** hartzeko aukera emon.

Asmoa.

- Tela atalean **norbere konpromisoa** idatzi, berba bat:
Zer egin daiket, mundu osoa gure familia izan daiten?

- Eskegi.



- Zeinuaren egunean (martiaren 31n), eskegitakoa batu eta **arratsaldeko topaketara** eroan.